

Zalantzak argituz...

Kontseiluan parte hartzeko alkatearen gonbita onartzeko argitu beharreko hainbat gai aurkituko dituzu jarraian. Galdera gehiago badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan hemen agertzen diren kontakturako bideak baliatuta.

Nola hautatu naute?

Udal errolda erabiliz egin da zozketa 16 urtetik gorako biztanle guztien artean eta hautatu direnei gutuna bidali zaie.

Zein ezaugarri izan dira kontuan zozketa egiteko?

Azkoitiko ezaugarri soziodemografikoekin adierazgarria den lantaldea sortuko da: adina, generoa eta bizilekua/auzoa hartu dira kontuan. 21 herritarreko lan taldea izango ditu Herri Kontseiluak.

Zer egin behar dut izena emateko?

230 gutun inguru bidali dira guztira, eta beraz, izena emateko deitzen duzuen guztien artean 21 pertsona hautatuko dira (21 pertsona baino gehiagok izena ematen badute, horien arteko zozketa egingo da). [633 432 889](tel:633432889) telefono zenbakira deitu edo partaidetza@azkoitia.eus helbidera mezu elektronikoko bat idatzi behar duzu zure partaidetza baieztatzeko. Bertan, harremanetarako kontaktu bat ere eskatuko dizugu.

Zein konpromiso eskatzen du herri kontseiluan parte hartzeak?

Eskatzen den konpromisoa da hiru bileratan parte hartzea, bileratik bilerara ez da aparteko lanik egin behar, eta parte hartzea hirugarren bileraren ondoren amaitu egingo da.

Zein izango da nire lana bertan?

Herritar bezala duzun ikuspegia helaraztea izango da zure zeregin nagusia, zure egunerokoan ikusi eta bizi duzuna kontuan hartuz, eta gainerako herritarrak entzunez. Hiru fasetan egingo dugu lan: (1) informazioa jaso, (2) jasotako informazioaz hausnartu eta gure balorazioa adierazi, eta (3) proposamen edo ekarpenak egin.

Zer egingo da emaitzekin?

Herri Kontseiluan herritarrek landutako proposamenak Herri Planaren amaierako txostenaren parte izango dira. Hala, Herri Plana osatzeko prozesuan jasoko dira eta Udaletik sakonean aztertzeko konpromisoa hartzen dugu, ahal den neurrian garatu ahal izateko.

Parte hartzera derrigortua nago?

Ez da derrigorrezkoa parte hartzea, baina Azkoitiko Udaletik bereziki animatu nahi zaitugu lantalde honetan parte hartzera, herritar bakoitzak egiten duzuen ekarpena oso garrantzitsua baita.

Ez dut gaia ezagutzen, zein ekarpen egingo dut nik?

Ez da gaia ezagutu behar Herri Kontseiluan parte hartzeko, izan ere, lehenengo saioan beharrezko informazio guztia jasoko baituzue, ondoren proposamenak egin ditzazuen.

Zein hizkuntzatan egingo da lan?

Azkoitiko hizkuntza nagusiak Euskara eta Gaztelania dira, nahiz eta badakigun beste hainbat hizkuntza ere hitz egiten direla. Hiru saioetan Euskaraz eta Gaztelaniaz jaso ahal izango ditugu azalpenak, norbera erosen sentitzen den hizkuntzan hitz egiteko aukera izango da.